

# bidegileak



**Norbert Tauer (1898-1983)**

Egilea:

**JOSE MARI SATRUSTEGI**

# H

## Lehen urratsak

emeretzigarren mendeko azken txanpan, 1898ko ekainaren 6an, etorri zen mundura Pilsen herrian Norbert Tauer euskaltzale txekiarra. Honela gogoratzen du –bere paperetako idazkera eta grafia originalez– 1956an *Egan* aldizkariara bidalitako lanaren ataltxo batean: «Nere familiako sehaska aitaren aldetik Bohemiako sartalde mugaldean datza. Bavierako mugan zabaltzen den eskualde menditsu honek *Chodsko* izena du eta hango herritarren eginbeharrik nagusiena aurreko mendeetan



Norbert Tauer (1898-1983)

izan zen, gure erresuma mugaren beste aldean bizi diren alemandarren oldarretatik defendatzea. Eskualde onen erdian *Klenci* izeneko erri eder bat dago; an errota zar batean nere arbasoak XVI. mendetik aurrera bizi ziran».



Txeikiako mapa, Ezkerraldean Klenci, Tauer jaio zen herria berak azpimarraturik

Han-hemenka bere izkribuetan emandako lekukotasunen arabera, kristau-erro sakone-tan oinarritutako familia zela sumatzen da. Hautzaroko oroitzapenei buruz aipaturiko artikuluan, adibidez, zoragarritzat zeuzkan Gabonak eta aitonak etxean egin ohi zuen belen edo jaiotza azpimarratzen du: «Neure belarrietan ditut oraindik Gabon kanta alaiak, eta neure begi aurrean agertzen dira Gabon ohitura zaharrak eta belen bat. Ikusi ditudan belenen artean neure ustez ederrena eta han-diena zen neure aitonak egina. Belen eder honek mahai handi bat betetzen zuen eta anfi-

teatro baten itxuran, gelaren gaineraino iga-ten zen».

Jaiotzako pertsonaia, estalpe, abere, aingeru eta ohiko izarraren berri zehatza ematen du gero, mendi gain batean kokatutako eliza barrokoa ahaztu gabe. Herriko museoan gor-detako belen honen berezitasun aurrerakoia, argi indarrak gabe mugitzeko aitonak asmatu zuen tramankulua da: «Lan harrigarri bat, bere antolaketarengatik ezezik, bere mekhanismo-arengatik ere. Harea botatzearekin erabiltzen den erroda baten bidez higitzen dena. Figura guztiak mugikorrek ziren».



Pragako gaztelua. Ezker alde gorenean Bito donearen katedral gotikoa

Lehen mailako ikasketak herriko eskolan egin ondoren merkataritza estudioak egin zituen, bestelako ogibide oso desberdina hartu bazuen ere bizian. Atzerri Ministerioko bulegoetan sartu zen 1918an. Bada aipamen bat bere izkribuetan orduantxe Euskal Herrira etorri zela dioena: «Ogei urte dun gazte bat izanik, Euskalerrira lenengo aldiz etorri nintzan». Ez zen haatik bidaia horretaz oroitzen, estreinako aldiz 1925ean izan zela hitzez aitortu zuelarik hil aurrean. Bigarren itzuli hau aipatzen du, bestalde, Jon Etchepare jatsuar gaztearen hileta oroigarrian: «Garazi izeneko

Euskalerriko lurralde menditsua –1925´garren urtean ikustatu nuena– agertzen da nere gogozko begien aurrean». Zenbait aste igaro zuen Iparraldean –bizimodua han merkeagoa baitzen– eta joan-etorriak egiten zituen Hegoaldera. Horrela ezagutu zituen, besteak beste, Donostia, Zarautz, Zumaia, Loiola, Bilbo eta Gernika.

Txekoslovakiak Madrilen zuen enbaxadan merkatalgo arloko arduradun izendatu zuten hurrena eta lanpostu horretan egon zen hamahiru urtean (1927-1939), Espainiako gerra amaitu arte.

Ez zuen bere burua diplomazia munduan errotua ikusten; kantziler izan zela errepikatzen zuen, funtzionario alegia. Zenbait hizkuntza jakitea zatekeen, gaztelania eta frantsesa bereziki, merkataritzako gaitasunarekin batera lanpostu horretarako merezimenduen euskarri egokia.

Euskal Herria ezagutu zuen une berean sentitu zuen atxikimenduaren zirrara ozena. Era-kargarria zen atzerritarrarentzat aurkipen berria. Sentimentuen piru asko egon daiteke lokarriaren hari ezkutuan elkaturik. Behin eta berriz aipatu izan zituen ingurumen, mendi eta paisaia ikusgarriez bestalde, antzi-



Pragako erloju famatua

nako sustraidun enbor sendoa eta bizinahiaren eragin indartsua sumatu zituzten atzerritarraren begi erneek. Bere herriarekiko parekotasunik ere bazuen aldameneko estatu indartsuez inguraturik bizi zen itsas ertzeko gure herri txikiak. 1946an Euskal Herriko gazteei zuzendutako mezu ederrean, hala zioen: «Oharpen hau egitera deitua naizela uste dut euskaltzale sutsua ezezik baita beste enda tiki baten laguna izanik ere. Neure herriaren hizkuntza, mende bat dela, euskara orain bezala, hiltzorian zegoen; hala ere, Jainkoaren laguntzaz, gure hertzaleek oldarketa gogorraren bidez geure hizkuntza salbatzea lortu zuten». Alemanak zirela, dio hasierako lerroetan, eurei arbasoengandik hasita zetorkien mehatxu nagusia. Bazekien, noski, tradizio zaharrak direla, azken finean, herrien ondarea eta iraganaren historia aberatsa, eta «Euskalerriko oitura eta kanta ederrak txoratu naute» idatzi zuen.


Hitzak ez ziren Tauer gaztearentzat eduki gabeko erretorika hutsa eta, une berean, eus-



Norbert eta Frantziska senar-emazteak

kara ikasteko erabakia hartu zuen. Hurbiletik jarrai daiteke, izkribuen bidez, hizkuntzaren arloan eramandako prozesua. Baionako liburudenda batean euskarazko liburuak erosi zituela esatean, esanguratsua da espresuki aipatzen duen liburu bakarra: Kanpionen gramatika. Hor dago, hain zuen, emandako lehen urratsaren lekukotasun fidagarria. Azalpen honen jarraian datorren mezuak merezi du hitzez hitz jasotzea bere euskaltzaletasunaren sakontasunaz jabetzeko. Honela dio: «Etixeratu ondoren, kemen aundiarekin ikasten eta euskerazko liburu berriak erosten asi nintzan, eta onela piztu zaidan euskaldunenganako maitasuna. Atzerritar asko(k) bezala, ikasten ez-ezik, baita biotz-biotzez eta barren-barrendik euskera goxo eta eztitzua maitatzen dut». Urte askoren buruan Parisera idatzitako gutun batean badago beste argibide bat iturri desberdinak erabili zituela adierazten duena. Honela dio: «Pilipinetan bizi den Soloeta Dima aitarekin artu-emanetan nago eskutitzen bidez. Aita onek idatzitako euskal-ikasbidearen laguntzarekin asi naiz euskera ikasten 1925´garren urtean». Euskalki desberdinak landu zituen, beraz, eta hala ulertzen da denen ezagutza eta lortutako trebetasuna.

Madrilen bazen orduan Ateneoak eratutako euskararen katedra eta Tauer jaunak ez zuen ikasten joateko parada galdu. Maidagan zen irakaslea eta Arrigaray kaputxino nafarraren gramatika erabiltzen omen zuen klasean. Enbaxadan egon zen urteetan ez zen Euskal



Euskara ikasteko Kanpionen Gramatika erabili zuen

Herrira itzuli. Frantziska bere emaztearen hitzetan, autorik ez zeukaten eta urruti egiten zitzaien asteburuan etortzeko. Hori dela-eta institutuetoako ikasle euskaldunei eskutitzak idazten hasi zen praktikatzeko. Euskalkien berezitasunek sortutako zailtasunez bestalde, euskara batuaren inguruko gatazka sortu zen 1968an eta pertsona bakoitzari zegokion eran idatzi behar izaten zituen gutunak. Trebetasun handia lortu zuen euskaraz idazten, ez hala mintzatzen, euskal hiztunik ez baitzuen erraz aurkitzen.

Espainiako gerra 1939an amaitzearekin Pragara itzuli behar izan zuen eta hamahiru urte

aurretik zuen lanbide berean jarraitu zuen 1951. urteraino ehun dorreen hiri miresgarrian. Ministerioko bulego lanak utzi ondoren, Udaleko hiri-zerbitzuan lan egin zuen 1958an erretiroa hartu arte.

Oporrak baliatuz 1982ko irailean agurtu nuen, errusiarren aginte garaian Stalinova 126 eta ondoren Vinohradska, antzinako ardo edo ardantze kaleko bere etxean. Indarrez ahul, gorputzez ezindurik eta ibiltzeko nagi, bere emazte prestuak lagunduta egiten zituen etxe barneko joan-etorri puntak. Buruz argi eta oroimenez txintxo zebilen, halere, eta zehaztasun handiz ematen zituen berarekin harremanak mantendu zituzten

euskaltzale nagusien zertzelada berezienak. Handik lau hilabetera pausatu zen, 1983ko urtarrilaren 28an.

Senarraren heriotzak emaztearena ekarri zuen laster, urte bereko maiatzaren 13an hil baitzen Frantziska. Emakume isila eta langilea, ez zen hautematen non zebilen baina han zegoen beti behar orduan eta moduan esku bat botatzen. Senarrarentzat bakarrik bizitu zen mundu honetan eta berarekin joan zen bestera. Umerik ez zuten. Anaia Felix arabieraren irakasle ospetsua izana unibertsitatean, hila zen ordurako, eta honen alarguna Vera arduratu zen Tauer koinatuen hileta, legezko betekizun, biblioteca eta ondareez.



Frantziska ezkerrean zutik, Vera, Felix anaiaren alarguna eserita eta Norbert

## Idazlea

Eder bazitzaion txekiarrari bere gazte denborako Euskal Herria eta gauza on asko ikusi bazuen ere euskal gizartean, hizkuntza bera zen harentzat altxor preziatuena. *Euskeraren eguna* zela bide 1951n idatzitako goratzarren jakintzat ematen zuen, hizkuntza dela nazio bakoitzaren oinarria eta beste herriengandik bereizten duen ezaugarria, euskara delarik euskaldunen hizkuntza, «Europako zaharrena eta ederrena».

Gerra osteko erasoek sortutako egoera hartan gordinegia zirudien gure belarrientzat,

adibidez, izkribu berean datorren pasarte honek dioena: «Euskotarrak gogoratu bear dute euskeraren galtzea Euskalerrriaren ondarmendia izango dela. Euskera iges (joan) ezkerro, joango dira betiko Euskalerrriaren oitura garbi ta jatorrak, kanta zoragarriak eta asaben sinismen bizia. Itz batean esateko: euskara ilko bada, ilko da Euskalerrria ere; euskera galduko bada, guztia galduta dago. Orregatik euskotarrak beren elea begi-niniak baño obeki gorde bear dute beren semeei joritasun osoan uzteko». Euskal kontzientzia zapaldua akuilatzen ahalegin handia egin zuen hainbat izkriburen bidez.



Norbert eta Felix anaia, arabiera irakasle handia zena unibertsitatean

## Prosa

Donostiako *Argia* astekariak 1928ko urriaren 28an argitaratutako *Txekoslovakia* izeneko originalaren azalean euskaraz idatzitako lehen artikulua zela zioen arren, ezabatu egin zuen gero oharra, ez baitzen zehazki oroitzen datuaz. Bizilekuz aldatzeko gorabeheretan aurreko paperak galdu egin ziren izkribu hau izan ezik. Frantzisko Echeverria apaiz andoaindarra zen 1929an argitalpenaren zuzendaria eta honekin izan zituen, hasieran, harreman estuak. Geroztik ez da euskal aldizkaririk Tauer-en idazlanen bat argitaratu ez duenik: *Egan*, *Aranzazu*, *Olerti*, *Euzko*



Donostiako *Argia* astekarian Tauer-en lehen euskal artikulua, 1928


*Deya*, *Zeruko Argia*, *Herria* eta abar luzea. Aipamen berezia merezi du *Euzko Gogoa*-k txekiarak zion abegi eta atxikimenduagatik. Iruñeko *Umeen Deya*, lau orrialdeko argitalpen xumea ere, goraki aipatzen zuen etorkizunaren argi itxaropentsua pizten baitzioten haurren lanek: «Euskarazko artikulua interesga-

rriak ekartzen dituzten aldizkari ugariak zenbakitik zenbakira hartzen ditut neure euskaldun adiskideei eskerrak, baina egia esateko, aldizkari hauen guztien artean atseginik handienarekin irakurtzen dudana *Umeen Deya* izenekoa da; bertan aurkitzen den guztia beren biotz garbien erditik euskara maite duten haurren lana da», idatzi zuen.

Era guztietako gaiak agertzen dira artikulu horietan, bere aberriko geografia eta historiaren aurkezpen laburra egiten duen lehen lanarekin hasi eta euskal ipuin herrikoiak kontatzeraino; gurasoen errota zaharra eta gaztaroko oroitzapenak edota euskara eta Euskal Herriari buruz munduan zehar sortzen ziren berriak zekartzan. Mainz Maguntziako unibertsitatean irakasle zen A. Hilckman aleman euskaltzale ospetsuak idatzitako idazlana aipatzen du, halako batean, eta edukia azaldu ondoren azken atal hau jasotzen du: «Herri honek ez du sekulan joputasuna ezagutu; euskaldun guziak aske ziran beren buruari aundikiei bezela begiratzen zioten. Mende askoren barnean euskaldunak beren “fueroen” arabera bizi ziran. Orain sortzean dagoen Europa Osoarentzat lan merezigarria izango da euskaldunen nortasun au gorde ta bizkortzea». Gerra ondoko sarrailapean itxita geunden euskaldunontzat Frankfurt-ko egunkari batek zioena jakitea munduko haize pizgarria sumatzea zen.



Umeen deia argitalpena goraipatu zuen Tauerrek



Eskuizkribu zirriborroa

Munduan zehar zabaltzen zituen, bestalde, bere izkribuak. Esanguratsua da, adibidez, 1955ean Mitxelenari esaten ziona: «Azkene-ko denboran euskerazko irakurgai batzuek idatzi nituen. Nere “Euskerarenganako Deya” aldizkari batzuek argitaratu dute: Parisko *Elgar* euskeraz, Frantzia(ra)ko erderaz; Paris-ko *Euzko Deya* euskeraz, Mexikoko *Euzko Deya* euskeraz, *Alderdi* euskeraz eta Caracas-en agertzen den *Euzko Gaztedi* euskeraz eta Espainia(ra)ko erdaraz». 1959an Mexiko hiri-buruko «Centro Vasco» euskal etxeak *Euzke-raren Alde* izeneko saria eman zion bertako *Euzko Deya*-n argitaratutako lan honengatik.

Euskaraz ez ezik txekieraz ere eman zuen munduan zehar euskal kulturaren berri. Pragako *Prehled* aldizkari katolikoak, 1935ean, ale berezia eskaini zion euskarari eta partaide izan zen Tauer beste idazle batzuekin batean. Bertan Azkuek Txekiako aberri-ereserkia euskarara itzuli zuen eta R. Slaby ospetsuak “Gernikako Arbola” euren hizkuntzara. Bigarren idazlan bat ere ezagutzen dugu «Baskové / Euskaldunak» izenekoa *Národnostní obzor* aldizkariak 1936an egitaratua. *Philologica Pragensia* da “Euskara eta gaurko egoera” izenburuko beste lan luze bat 1965ean atera zuena. Euskarak dituen muga eta eragozpenak azaltzen ditu. Desagerturik zegoen Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaz mintzo da, etorkizunari begira euskarak atzerrian sortzen zuen interesa azalduz amaieran. Aldizkari beraren 1969ko bigarren alean, berriro, “Eus-

kal Akademiaren berrogeita hamar urte” izeneko artikulua plazaratu zuen. Pragako Odeon argitaletxeak 1968an argitaratutako *Slovník spisovatelů Španělsko-Portugalsko* liburuan, gaztelania, portugesa, katalana eta galegoarekin batean, euskarari buruz Tauer-ek egindako artikulua agertu zen, euskal literaturaren historia labur batekin gure idazleen berri emanez.



Tauer 1957an, Pragako Udaletxean lan egiten zuenean

Bere izkribuen zirriborroetan bazen txekieraz egindako euskal gramatika bat eta Euskal Herriko esaera zahar eta atsotitzen zerrenda luzea.

Euskaldunok Tauer genuen bezalako ordezkari gutxi izango zuen urte latz haietan inongo herriak, atzerrira begira hain lan astuna, posta gastua eta ordu guztiak dohainik ematen zituena.

## Bertsoak

Zaletasunak eraginda bertsoan idazteari ekin zion suharki eta ez zen euskal munduan festa, heriotza, santu edo laikoen ospakizunik txekiarrak bere goratzarrea hitz neurtutan bidaliko ez zuenik. Hauetako asko aldizkarietan agertu ziren, baina askoz gehiago dira haatik pertsonalki jaso eta norberaren eskuetan argitaratu gabe geldituak. Denen kopiak gorde ohi zituen eta liburu mardula osa liteke bere bertso paperekin. Adiskide bakoitzarentzat hurbileko aipamen goxoak izan ohi zituen beti, eta festagirotzaratatsuetan isiltasunez entzun ohi zen atzerriko adiskidearen oihartzun maitagarria, beti euskara eta Euskal Herriarenganako amodioz egina.

Ez zuen bertsoak egiteko aitzaki berezi beharrik eta noiznahi bidali ohi zituen horrelako lanak aldizkarietara. *Herria* zen hainbat mezu

jaso zituen horietakoa. Bertso kontuan bazuen, halere, itzal txiki bat ahots apalez aitortzen zuena: ez idazteko esanez jasotako gomendioa. 1960ko Eguberri aurrean, beste gutun batzuen artean, Koldo Jauregi *Jautarkol* (1896-1971) olerkariak mezu hau bidali zion gordin-gordina: «Zuk badakizu aldia edo astia ondo baño obeto erabiltzen; argatik, noski, ainbat idazlan egiteko zera gauza. Aldizkari ainbat eta ainbatetan ikusten baidet zure izena. Nik, orain beintzat, neuk idazteko baño, bestek idazten dutena irakurtzeko gogo biziagoa det. Ikusi det, oraingoan zu ere, bertsoan idazten asi zerala. Zergatik ote? Ez al deritzazu len ere naiko bertsolari baditugula? Gañera, bertsoak egitea, olerkiak sortzea dala ote derizkiozu? Nik uste zu, idazle jaio zerala eta ez olerkari, ta itz-lauz idazteari jarraitu bear diozula, bertsoei lagata. “Nere olerkien bidez –esaten didazu– euskaldunen biotzetan euskeraganako maitasuna piztu nai dut”. Nere ustez, ba, leen bezela beste artikulua ta lantxoak argitaratuaz, zure nai ori obekiago lortuko duzu».



«Arantzazuko Amari» (1960)



Idazle txekiarren *ex libris* euskalduna


## Gutunak

Eskutitzen arlora eramaten gaitu horrela gaiak. Idazlan eta bertso asko argitaratu arren, gutunen emaitza da Tauer euskaltzalearen ikuspegi ezagunena gure artean. Institutueta-ko ikasleekin hasi zituen lehen posta harremanak euskara landu eta trebetasuna lortzen joateko asmoz. Euskal egunkari, astekari eta argitalpen asko hartzen zuenez, aldian aldiko gertakizun guztien berri zehatza lortzen zuen horrela helbide berriak eskuratuz. Lehen urte haietan gutunak gehituz joan arren ez dago kopurua jakiteko biderik.

Argentinako *Euskaltzaleak* izeneko bazkunak euskararen erabilera bultzatu nahian, *Euskal-idazkilarien saria* sortu zuen, 1954an, euskaraz gutun gehien idazten zuen pertsona omentzeko. Hurrengo urtean Pragako euskaltzaleak 160 eskutitz idatzi zituen beste horrenbeste pertsona eta elkarteri, eta urtetik urtera areagotzen joan zen kopurua. Idazki bakoitzak bere zenbakia zeraman eta aro berriko lehen mezu zenbatua, 1955eko ilbeltzaren 23an, Ainhoako Martin Elso lapurtarrarentzat izan zen. Hiru urteren buruan, 1958ko ilbeltzaren egun berean hain zuzen, Buenos Airesko *Euskaltzaleak* taldeko buruari zuzendu zion 1.000. gutuna. Urterik urte bereganatu zuen saria Tauer idaztilariak, sei urtez jarraian, eta *Bere idazkiak* izeneko liburuxka argitaratu zion *Ekin* argitaletxeak zenbait gutun bilduta Pragako euskaltzale ospetsuari.

Bide beretik jarraitu zuen ondoko urteetan eta «Eskutitz hau 2.652'garrena da» dio Mitxelenari 1970.eko irailaren 24an idatzitako eskutitz batean. Une horretan ez zuen izkribu asko zenbatzen.

Idazlan hauen bilduma erraldoiak irakurketa asko eskaini dezake. Alde batetik, euskaltzalearentzat ezusteko berri pozgarria gertatu ohi zen atzerriko jaun baten euskal mezua. Aita Roman Berako hizkuntzalari ospetsuak, honela adierazi zion bere atsegina 1954an: «Oraintxe bertan eman didate zure gutun ederra ta erantzun nai dizut berealaxe, poz aundia eman didazulako nere biotzaren erdian. Bai, jauna, bai; bizkortu bear gaituzute zuek, erdaldunak, gure euskeraren aldez alegiñak egiten ari geranok, guziak korapillaturik, ia



*Bere idazkiak*. Buenos Airesen 1958an argitaratutako gutun bilduma

zerbait bizkortzen degun gure euskera ederra. Nik emezortzi izkuntzetan lan asko egin ditut, ta bederatzi elizti (gramatika) berriak idatzi ditut beste ainbeste ele irakasteko».

Inoiz euskaraz hitzik idatzi gabeko euskaldun asko akuilatu zuen, bestalde, arbasoen hizkuntzan berari erantzuteko. «Makin(a) bat txartel eta eskutitz aurkitzen dira neure lan-mahaiaren gainean, baita euskal liburu eta aldizkari batzu. Denak neure euskaldun adis-kideengandik heldu zaizkidan Gabon eta Urteberrirako zorion-agurrak dira. Bi ez beste guztiak euskaraz eginak. Hauxe, benetan poz handia da ni bezalako euskaltzale su-tsuaarentzat. Pozik ikusten dut euskaldunek hasi dutela euskara aintzakotzat hartzen eta

euskara jatorra bai hizketan, bai eskutitzetan erabiliz, zabarrak diren euskaldunen artean emeki-emeki euskararenganako zaletasuna piztu nahi dutela», zioen (1959) *Euzko Gogo* aldizkarian.

Munduan zehar sakabanatutako euskaldunen artean lokarri preziatua gertatu zen Tauer jauna. Azken aipatutako artikuluan honela dio: «Hartu ditudan zorion-agurrak Pirinioko bi aldetako Euskal Herritik ezezik, baita atzerrietan bizi diren euskaldunengandik ere etorri dira. Hegoamerika, Mexiko, Filipinak eta Txinako bidea egiten zuten, besteak beste, Pragatik bidalitako bere izkribuek. Australiatik ere txartel bat hartu dut han bizi den euskaldun batengandik».



Euskaltzaleekin harremanetan zegoen

«Edozein hizkuntzako literaturan garrantzizkoak dira idazleen gutunak, dio Juan San Martinek, maiz horietan azaltzen bai dute egile edo autoreek beren obretan jarri ez dutena. Gutunez, adiskideki, aitortzen bai dira barne-tikako gogoeta, kezka, pentsaera eta abar, bereziki publikatzera ausartu ez denetik. Pragako Norbert Tauer izan zen euskal idazle askorentzat pertsona konfiantzazkoa euren pozak, ezbeharrak, minak eta zalantzak agerterakoan, Tauer zenaren neurririk gabeko euskaltzaletasunak guztientzako eramankortasuna zuenez gero».


## Euskara

Merezimendu handikoa da Tauer-ek euskara lantzen egin zuen ahalegina. Gerra aurreko saioetan berrizale kutsua sumatzen zaio, hiztegi mailan bereziki, orduko abertzale gehien-en joera baitzen. Herrialde bakoitzeko harremanak ugaritzean euskalkien berezitasunez jabetzen joan zen lekuan lekuko hizkerara hurbildu nahian, eta ondore onak lortu zituen. Baserrian euskara ikasi zuela esan duenik izan da, baina, ez da hala; liburu eta eskutitzen bidez egin zituen bere aurrerapenak.

Arantzazun 1968ko batzarrean Euskaltzaindiak hartutako erabakien ondoren euskara



1973. Egunberrietan bidalitako zorion txartelen zerrenda




Baionako Eusko Ikaskuntzen Lagunartek 1950ean bidalitako babes-txartela

batua auzibide gertatu zen euskaldunen artean, eta Tauer-en adiskideak alde bietan zeudenez gertutik bizitu zuen auzia. Laster ikasi arren arau berrien bidea, ezin zuen denekin baliatu trebetasun bera eta, inor ez haserre-tzeko, bakoitzari zegokion eran idazten zituen gutunak. Horregatik da hain desberdina batzuen eta besteen helbideetan agertzen bere idazkera.



Euskaltzaindia. Urgazle izendapena 1955ean

Gizon baketsu eta xaloa izan arren nahigabez betetzen zuen gizona egoera honek, eta hainbeste maite zuen euskarak istilu gorriak sortu zizkion euskaldunengandik. Bere garaiko euskal argitalpen seriotan ere idazkera originala aldatu ohi zioten, batzuetan, eta ez beti txukunago uzteko. Gertaera horiei ez zien garrantzirik ematen berak, baina lehertu egin ziren behin edo beste, bortizki, arazoak eta Pragara iritsi zipriztinak. Arestirekin gertatua da, adibidez, esanguratsuenetakoa. *Batasunaren kutxa*



Buenos Airesko Euskaltzaleak 1956an «Bazkide omengarri» dioen izendapena

zin eginez izenpetu zuten Euskal Idazleen Elkartekoa zen Tauer, liburuan ikus daitekeen bezala, eta benetan estimatzen zuen Gabriel Aresti gaztea. Euskal Herritik kazetari bat joan zen, halako batean, Pragara eta ohi zenez elkarrizketa mamitsua egin zion euskaltzale txekiarrari. Arba ezizeneko idazleak Bilboko egunkari batean argitaratu zuen, gero *Vasconiana a los cuatro vientos* izeneko liburuan bilduko zuen elkarrizketa hori. Atal batean, euskara batuari buruz mintzo delarik, honelako zerbait ipintzen du kazetariak Tauer-en ahoan: «Bitxia da zer grinak sortu dituen ara-

zoak. Idazten dudalarik arretaz begiratu behar izaten dut “h” letraren aldeko ala aurkako norbaiti zuzentzen diodan gutuna, nahastekarik ez sortzeko. Hori ez da hain larria nire ustez. Hor duzu “h” duen gaztelania horregatik bere zabalkundea batere oztopatu gabe. Kontuan izan behar da Iparraldeko zenbait tokietan “h” hasperenduna badela, beharrezkoa beraz. Iduritzen zait, garrantzizkoa ez dela “h” hartzea edo uztea, euskararen batasuna lortzea baizik, eztabaida antzuak alde batera utzita».

Arestik susmo txarra hartu zion lekukotasun horri, eta «Nork dio gezurra?» izenburuko erantzuna eman zion *Anaitasuna*-n (1971.I.15).

Honela zioen, besteak beste: «Talon-ek euskeraren existentziaren berririk eduki baino lehen, bagenedukan guk Tauer-ekin harremana. Beraz, ez dauku gurutze zeltikoaren eramale horrek ezer berririk ekarri ezagutze-  
ra. Baina bai harri eta lur utzi gaituen irain bat, Norbert Tauer-en kontrako irain itsusi eta nardagarri bat. Zeren, beti iduritu baitzaiku, txeko idazlearekin urte askotan adiskidetasun luzean, hura prestutasunaren eredu bat. Eta orain honela diosku Talon-ek, edo aditzera ematen dauku behintzat, behin Tauer-ek egin zuen zina (Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako erabakiak beteko zituela...) desgoki eta itsusiro apurtzen duela».



Tauer senar-emazteak azken urteetan

Berehala etorri zen txekiarraren azalpena. Honela dio Arestiri bidalitako gutunak: «Nere adiskide maitea. Gaur bertan *Anaitasuna* izeneko aldizkariaren 218-garren zenbakia esku-ratu zait. “Nork dio gezurra?” izena duen zure artikulua irakurri dut eta asko harrituta gelditzen naiz artikulu honetan esaten duzun guztiaz. Neronek Talon Jaunaren artikulua ez ditut irakurri eta horregatik ez dakit zertan “apurtu” dutan nere zina. Ikusten duzunez euskera batuan *Batasunaren kutxa*-ren arauera idazten saiatzen naiz eta euskera batuaren alde ahal dudana guztia egiten dut. Niri ezezaguna zait. Talon jaunak nere adiskide ta euskal

idazle Berriotxoa-tar Balendin Anaiaren eskutitz bat ekarri dit; berarekin eta bere emaztearekin hemengo hotelean hitz-egin eta nere etxera eraman dut nere euskal liburutegia erakusteko asmoz, Berriotxoa Anaia-ren eskariaren arauera. Nere aldetik eskatzen dizut Talon jaunaren artikulua niri bidaltzeko. Har itzazu, adiskide maitea, nere agurrik bizienak eta agindu nahi duzun guztia zure menpeko».

Hitz-erdika aditzera eman zuenez, nahigabe handia sortu zion gertakizunak eta ez zen gaia sakontzen ahalegindu. Arestiren hileta-oroi-garria eskuan zuela, ohartxo hau atera zi-



Euskaltzaleen Biltzarra 1958-59. Lagun agiria

tzaion apalki: «hil aurreko azken gutuna», ez baitzuen eskutitzaren erantzunik jaso.

Euskal talde askoren goresmenak jasotzen zituen, hala nola, Caracas-ko Eusko-Etxean 1958ko Euskararen eguna ospatu zuten berrogeita hamar partaidek sinatutako eskuizkribua, edota Olabide agurgarriaren omenez bilduta, 1959an, «Tauer´tar Norberta Jaunari, Bilbo´ko euskaldunak gaur, bihotz-bihotzez eskaintzen dizugun gorazarre urri eta apala», 168 izenekin espreski inprimatutako txartel dotorea.

Kidetzat hartu edo ohorezko izendapena eskaini zioten Elkarateak hauek dira:

1950. Eusko Ikaskuntza Lagunartea. Biarritz, otsailaren 11n.

1954. Instituto Americano de Estudios Vascos. Buenos Aires, maiatzaren 19an.

1955. Euskaltzain urgazle. Bilbo, urtarrilaren 30ean.

1956. Euskaltzaleak. Ohorezko kide. Buenos Aires, urtarrilaren 21ean.

1958. Eskualzaleen Biltzarra. Lagun Ageria.

1973. Euskaltzain ohorezko. Bilbo, ekainaren 21ean.

1978. Gerediaga Elkarateak «Tontorra Saria», eman zion Durangon, azaroaren 1ean.



1973an Euskaltzain ohorezko egin zeneko ziurtagiria

## Txekia

«**E**z dakit zergatik atsegin zaigun txekoei Euskal Herria, geure antzera zapaldutako herri txikia delako ote?» atera ziztzaion Jon Nerudaren jaiotetxe ondoko garagardotegi zaharrean, Karel Keller unibertsitateko historia irakasleari. Kontuak ateratzen hasita, bada euskararen aldeko jarraipen bat Txekiako gizon ikasien artean. *Svatopluk Cech* (1846-1908) idazleak karlisten lehen gerrako pasadizo erromantikoa argitaratu zuen, 1882an, Pragako egunkari batean. Gauez Pirinio aldeko harpe batean estalitako lau euskaldun bahi-



Norbert Tauer euskal dantzarien autobus atzean

tzera zihoan arerio multzoa. Toki estua baitzen, salataria aurrean zela ilara eten eta amildegitik jaurti omen zituen lagunak bahitzaile taldeko mutil euskaldun batek.

*Rudolf J. Slaby* (1885-1957) espainiera arloko irakaslea, Pragako Unibertsitatean errektore izan zen eta Bartzelonakoan ere irakatsi zuen. Berau da, lehen esan bezala, *Gernikako arbola* txekierara itzuli eta *Prehled* aldizkarian atera zuena. Azkuek euskaltzain urgazle izendatu

zuen, Espainiako Akademiak bere aldetik egina zuen bezala. *Olsany* hilerri nagusiko bere hilobian izendapen biak agertzen dira.

*François Pospisil* Morabian etnografia erakustokiko zuzendaria euskal gaiez arduratzen zen. Eusko Ikaskuntzak 1927an antolatutako kongresuan hitzaldi bat ematera etorri zen Baionara. Tauer eta biak etortzekoak ziren, baina batentzat bakarrik lortu zuten bidaia baimena. Holandan egindako antropologiako beste kongresu batera euskal dantzen gaia eramane zuen.

*Skaliytka* irakasleak ikastaro bat eman zuen 1947an euskal kulturari buruz Pragan.

Euskadiko Prentsa Ofizina bazen gerra osteko Pragan. Iñaki Rementeria izan zen hasieran buru, eta Epalza gero. Honen ardurapean OPE izeneko aldizkaria plazaratu zen bi urtean (1947-1948). Tauer zen idazlanak txekierara itzultzen zituena. Egoera nahasia bizi zuen orduan Txekiak eta, arazo politikoak zirela bide, utzi behar izan zuen Epalzak lurralde hura eta berarekin desagertu zen aldizkaria.

Tauer-ek Ministerioko kargua 1951n utzi zuen uneko giro txarra ez zen ondoko urteetan hobetu. *Gottwald* lehendakaria inoiz argitu ez den moduan hil zen, 1953an, Stalinen hileta ospakizunetatik itzuli eta hirugarren egunean.



Goizaldi Donostiako dantzari taldea Pragan (1964)

Sobietarren aldetik Varsoviako Hitzarmen famatuak Txekoslovakia ez zion ezer onik ekarri. Ez da harritzekoa 1955ean Mitxelenari egin zion etsipenaren mugako aitorpena: «Orain igarotzen ditugun denbora ilunetan nere adiskideen idazkiak nere poz bakarra dira. Adiskide euskaldunak ditut mundu osoan eta ayekin elkar-idazten nago».

Arazo larri guztien artean, euskaldunon lagun eta babesle prestua izan zen Tauer bere etxe-ko atea jotzen zutenekin. Pragako Jesus Haurraren irudi ospetsua Garaipeneko Andra Mariren elizan dago eta bere otoitza zenbait hizkuntzatan idatzita zegoen Donostiako «Goizaldi» dantzari taldea 1964an bertan egon zelarik. Euskal Herrian debozio handiko irudia izana da, eta euskaraz ere jarri nahi izan zuten aldare aurreko otoitza. Tauer karmeldarren elizako arduradunaren adiskide zen, hain zuzen, eta ez zuen berak itzulitako euskal tes-

tua ipintzeko eragozpenik izan, besteek ez bezala, euskaldunon aldeko bertso bat gehituta. Honela zioen eranskinak:

Otoi, gure Jesus Haurtxo maitagarria,

Begiratu zazu, beti, Euskalerria,

Bait´ ere euskaldunen izkuntza maitia,

Gure euskera zaar, gozo ta ezia.

Sei ahapaldiko olerki bat bidalia zuen, une hartan, *Aranzazu* aldizkarira eta azken atala da Jesus Haurraren aldarera aldatu zuena. Gogoa zuen txekiarrak urte askoren buruan, Gaizka Barandiaranek orduan esandakoa: «Ezinezkoa litzateke hori Espainian, politika kutsua ikusiko bailitzaioke berehala».

Iruñean 1908an sortu zen Pragako Jesus Haurraren kofradia, eta etxe askotan ikusten zen, duela denbora gutxi arte, santuaren metalezko irudia.



## Ondarea

Bizi osoan Pirinio mendian bizi den herri zaharraren talaiaari zintzoa izan ondoren Europaren bihotzean, 84 urte luzeetan eskuratutako altxorra aberatsa zen benetan. Ahozko oroitzapen mamitsuez bestalde, liburutegia, aldizkari eta idazki bitxiak, edota gutundegia, Euskal Herriaren aro ilun-ilun bateko historia preziatua bihurtu ziren. Zubiaurre pintorearen bi koadrok adierazten zuten, etxera sartzean, euskaldunon arnasa zeriela bertako horma eta biztanleei. Urik gabeko itsasoz iritsitako euskal arrantzale sudurluze haien ongietorri bera zen Tauer familiarena. Hitz-erdika jalgiz joan ziren asmo zabalak. Baina, nola ekarri hainbeste agiri, eta liburu multzoa? Zehatzak ziren sobietarren mugako arauak kulturari dagokionik ateratzen ez uzteko. Baimena eskatzea, berriz, erbia jaso eta atzetik txakurra botatzea zen. Erdiko



Nafarroako etxe askotan zegoen Pragako Jesus Haurren irudia

bidetik egin zen lana; beldur pittin bat eta ausardia askorekin, eskuko balizan ekarri ziren, bi alditan, denak. Irteerako orduan harri-duraz isilik gelditu zen Tauer, berak emanak zirela –ez ostuak alegia– ziurtatzen zuen agiria sinatzean.

Gaur egun Euskaltzaindiaren Plaza Barriko Azkue Bibliotekan aurki daitezke era guztietako 484 euskaldunekin Tauer txekiarrak kurutzatutako 6.303 eskutitz, eta Vinson zenaren ondareko zenbait liburu preziatu hark Paristik postaz lortuak, besteak beste. Altxor hau interesgarria dela ukatzerik ez dago, noski, baina hark idatziz egindako lan



Pragatik Euskaltzaindira ekarritako liburu eta dokumentuen katalogoa

erraldoiaren adibide bat besterik ez da eta ez du benetako neurria ematen. Makinaz idatzitako eskutitzen kopiak dira Pragatik ekarritakoak, baina eskuizkribuz kopiarik gabe bidalitako beste hainbat eskutitz, argazki, Gabonetako txartel eta idazki laburren kopurua non gelditzen da?

Bi eratako balioa izan dezake gutunak bildumak: izen ospetsu, idazle eta herriko jende askoren bizitzako berri zehatzak biltzeko iturria da, alde batetik; eta Euskal Herri osoari dagokion historia ezkutuen ikergai jakingarrira, bestetik. Euskaldunak ez du asko idazten,

berez, eta Espainiako gerraren inguruan sortutako giro beldurgarrian lekukotasun asko galdu zen. Hori dela-eta lehen eskuko egiztapenen aldetik hutsune larria bada galtzaileen artxibo eta paper erreetan. Tauer-en bilduma badira aldizkarietan idatzi ezin ziren berriak, espetxeetan nozitutako zigorren aipamenak, atzerriratuen testigantzak, herriko jende xumeak eguneroko bizian zituen zailtasunen kezkak eta lorpenen poza, itxaropenaren argi printzak eta ezinezkoaren mikatzasun garratza. Askorentzat familiako partaidetza lortzen du elkarren berri emateko garaian



Jose Mari Satrustegi (2003ko otsailean)


atzerriko adiskideak, eta arreta handiz zain-  
tzen ziren bere izkribuak.

Munduan zehar sakabanatutako ia bostehun  
euskaldunen euskaraz idazteko nagitasuna  
edo utzikeria bota eta hainbeste mila posta-  
-harreman lortzea dateke Tauer-en merezi-  
mendu nagusia. Euskara etxean ofizialki gu-  
txietsia eta erasotua zen garaian harridura  
sortu ohi zuen askorengan atzerritar honen  
euskaltzaletasun sutsuak.

Euskal kulturarentzat argitzen zihoan udabe-  
rriaren esnarazle goiztiarra, eta munduan  
zehar Euskal Herriak izandako enbaxadore  
baliotsua zen idazle txekiarra. Inoiz Espainia-  
ko gerraren eta Diktadura inguruko euskal  
historia zehatza egin nahi bada, lehen eskuko  
iturria da berea. Behar bezala ordaintzea oso  
zaila izango den zor historikoa dugu euskal-  
dunok Norbert Tauer euskaltzale ospetsua-  
rekin.



Norbert eta Frantziska Tauer-en hilobian Satrustegik  
utzitako lore sorta



Hileta iragarkia

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Norbert Tauer*
- *Jose Mari Satrustegi*
- *Bidegileak bilduma*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2021-X (Lan osoarena)  
84-457-2025-2

L.G.: S-\*\*\*-2003